

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN ERABAKIA, 2008ko apirilaren 10ekoa Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen 2006ko maiatzaren 17ko erakunde arteko Hitzarmenean, aurrekontu-diziplinari eta finantza-kudeaketa egokiari buruzkoan, 28. puntuan xedatutakoari jarraiki, Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtsaren mobilizazioari buruzkoa (2008/370/EE).

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DECISIÓN DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 10 de abril de 2008, relativa a la movilización del Fondo Europeo de Adaptación a la Globalización de conformidad con el punto 28 del Acuerdo interinstitucional, de 17 de mayo de 2006, entre el Parlamento Europeo, el Consejo y la Comisión sobre disciplina presupuestaria y buena gestión financiera» (*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 128/6, 2008/5/16koa*)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

II

(EE/Euratom Tratatuak aplikatzeko erabakitako egintzak, derrigorrez argitaratu behar ez direnak)

ERABAKIAK

EUROPAKO PARLAMENTUA ETA KONTSEILUA

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN ERABAKIA,

2008ko apirilaren 10ekoa,

Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen 2006ko maiatzaren 17ko erakunde arteko Hitzarmenean, aurrekontu-diziplinari eta finantza-kudeaketa egokiari buruzkoan, 28. puntuan xedatutakoari jarraiki, Globalizaziora Egokitzeko Europako Funttsaren mobilizazioari buruzkoa.

(2008/370/EE)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaz aztertu dute,

Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen erakunde arteko Hitzarmena, 2006ko maiatzaren 17koa, aurrekontu-diziplinari eta finantza-kudeaketa egokiari buruzkoa ⁽¹⁾, bereziki haren 28. puntua, aztertu dute,

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1927/2006 (EE) Erregelamendua, 2006ko abenduaren 20koa, Globalizaziora Egokitzeko Europako Funttsa sortzen duena ⁽²⁾, eta bereziki 12. artikuluko 3. paragrafoa, aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute, eta honakoa kontuan hartuz:

(1) Globalizaziora Egokitzeko Europako Funttsa («Funttsa») mundu mailako merkataritza-eremuan gertatutako egitura-aldaketa garrantzitsuen ondorioak pairatzen dituzten langileei laguntza osagarria emateko sortu zen, baita lan-merkatuan berriaz sartzen laguntzeko ere.

(2) 2006ko maiatzaren 17ko erakunde arteko Hitzarmenari esker, Funttsa urteko 500 milioi euroko gehienezko muga arte mobilizatu daiteke.

(3) 2007ko irailaren 12an, Maltak Funttsa mobilizatzeko eskaera egin zuen, ehungintza-sektorean izandako kaleratzeak zirela-eta, bereziki VF (Malta) Ltd eta Bortex Clothing Ind Co. Ltd konpainiek kaleratutako langileentzat. Eskaerak 1927/2006 (EE) Erregelamenduko 10. artikuluan aurreikusitako finantza-ekarpenak zehazteko ezarritako baldintzak betetzen ditu.

(4) 2007ko urriaren 9an, Portugalek Funttsa mobilizatzeko eskaera egin zuen, autogintza-sektorean izandako kaleratzeak zirela-eta, eta bereziki Opelek Azambujan, Alcoa Fujikurak Seixalen eta Johnson Controlsek Portalegren kaleratutako

(1) C 139 EO, 2006.6.14koa, 1. or. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/29/EE Erabakiak (L 6 EO, 2008.1.10ekoa, 7. or) aldatutako Hitzarmena.

(2) L 406 EO, 2006.12.30ekoa, 1. or.

2008/370/EE erabakia (EBren Egunkari Ofiziala, L 128/6, 2008/5/16koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

langileentzat. Eskaerak 1927/2006 (EE) Erregelamenduko 10. artikuluan aurreikusitako finantza-ekarpenak zehazteko ezarritako baldintzak betetzen ditu.

(5) Beraz, Funtsa mobilizatu egin behar da, eskaerei finantza-ekarpena egiteko.

ERABAKI DUTE:

1. artikulua

Europar Batasunak 2008ko aurrekontu-ekitaldirako daukan aurrekontu orokorraren barne, Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtsetik 3 106 882 euro mobilizatuko dira konpromiso-kreditu eta ordainketa-kreditu gisa.

2. artikulua

Erabaki hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratuko da.

Bruselan eginga, 2008ko apirilaren 10ean.

Europako Parlamentuaren izenean, H.-G. PÖTTERING presidentea

Kontseiluaren izenean, D.RUPEL presidentea